

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Berotegi-efektuko gasen zuzeneko isurtzeak %5,25 gehitu ziren Nafarroan 2015. urtean

Foru Gobernuak energia-eraginkortasunerako eta energia fosilen kontsumoa murrizteko neurriak hartu ditu isurtzeak gutxitze aldera

Ostirala, 2017.eko apirilak 21

Berotegi-efektuko gasen (BEG) zuzeneko emisioak %5,25 gehitu ziren Nafarroan 2015. urtean, eta 5,23 milioi tonara iritsi ziren. Datu horrekin amaitu da 2010az geroztik gertatzen ari zen beherazko joera. Areagotze hori energiaren transformazio-sektorean emisioak gehitzeagatik gertatu da, elektrizitatearen nahiz errekuentzaren produkzioan ez ezik, industriaren eta garraioen sektorean ere. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak zenbait neurri definitzen ari da errealitate horri aurre egiteko, eta, tartean, proposatu da 2030. urtean berriztagarriek osatzea kontsumo energetikoaren %50a, energia fosilen kontsumoa proportzionalki murriztea eta energia-eraginkortasun handiagoa lortzeko laguntzak eskaintzea.

Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako BEG isurtzeen inguruan egindako inbentarioaren datuen arabera, egun Nafarroan emisioak gehien bultzatzen dituen sektorea industria-sektorea da (%29), eta, jarraian, garraioa (%22) eta lehen sektorea (%21) aurkitzen dira, biak ere goraka azken urteetan. Emisioetan pisu gutxien duten sektoreak, berriz, bizitegia eta zerbitzuak (%12), energiaren sorrera (%13) eta hondakinak (%3) dira.

1990. urtearekin alderatuta (urte horretan sinatu zen Kiotoko Protokoloa), isurtzeak sektore guztietan areagotu dira, industria-sektorean izan ezik. Aipatzekoak dira 25 urte hauetan bizitegia-sektorean eta zerbitzuetan izandako igoera (%60tik gora), garraioa (%30) eta hondakinak kudeatzeko sektorean izandakoa (%28).

Sortutako emisioen eta ekoiztako aberastasunaren arteko erlazioari erreparatuta, BPGd unitate bat ekoizteko, 2015ean berotegi-efektuko gas gutxiago isuri behar izan ziren, BPGd %19 gehitu baitzen 2005-2015 denboraldian eta emisioak %27 gutxitu.

Kontuan izan behar da 2015ean egokitu zirela Nafarroako emisioen inbentario guztiak IPCC 2006 gidaren metodologia eta faktoreetara; gida hori aplikatzea derrigorrezkoa da 2015eko edizioaz geroztik.

Bilakaera sektoreen arabera

Industria-sektoreak Nafarroako emisioen %28,6a osatzen du, %5,9 gehituta iazko urteaz geroztik, erregai fosilak gehiago erabiltzeagatik. Bertan sartzen dira industriako errekuentza, errekuentza gabeko prozesu industrialak (zementuaren produkzioa, kareharriaren eta dolomiaren

erabilera), gas fluoratuen kontsumoa eta disolbatzaileen erabilera. 1990. urtearekin alderatuta, isurtzeak %6,5 murriztu dira.

Bestalde, garraioaren sektoreak emisioen %22a osatzen du. Gehienak, %80 inguru, bidaiarien edo merkantzien garraiorako ibilgailuen trafikoa dela-eta sortzen dira. Aipatzekoa da trafiko horrekin loturiko emisioen %75a hiriarteko ibilbideetan sortzen dela. 2014tik 2015era emisioak %2,8 gehitu dira. 1990az geroztik, igoera nabarmena izan da; hots, %30a.

Nekazaritzari eta abeltzaintzari dagokienean, Foru Erkidegoko emisioen ia %21a osatzen dute. Azken urtean, isurtzeak ia ez dira batere aldatu, %1 jaitsi baitira. Sektore honetan, emisioetarako ekarpen nagusia nekazaritza lurren oxido nitroso isurtzeek, ongarritze-prozesuek etaazienda-txabolako metano emisioek egiten dute. Sektore honetako isurtzeak %6,2 gehitu dira 1990. urtearekin alderatuta.

Energia sortzeko sektoreari dagokionez, Nafarroako emisioen %13,5a osatzen du, eta nabarmen gehitu da (%27), ziklo konbinatuen jarduera izugarri gehitzearen ondorioz. Bertan sar ditzakegu hondakinak kudeatzeko instalazioetan eta baterako sorkuntza industrialeko instalazioetan elektrizitatea sortzeko prozesuetako emisioak.

Bizitegi eta zerbitzuen sektorea Nafarroako emisioen %13aren arduraduna da. Emisio horiek aurreko urtetik %1,4 gehitu dira. Klimatizazio eta ur beroko instalazioetako errekontzarenak dira. Isurtzeak %61 areagotu dira 1990az geroztik.

Azkenik, hondakinen sektorean sartzen dira zabortegiko hondakinen deposituko metano eta CO₂ emisioak eta hondakin-uren tratamendukoak. Gure lurraldeko emisioen %3,5a hartzen dute, eta %1,5 murriztu dira 2014arekin alderatuta. 1990. urtearekin alderatuz gero, ordea, sektore horren emisioak nabarmen gehitu dira baita ere; zehazki, %29.

Sektore arautuak

2015. urtean, Nafarroako BEG emisioen %33a sektore arautuak deitzen direnetatik dator, eta honako hauek bezalako sektoreko 23 industriak eta instalaziok osatzen dituzte: elektrizitatea sortzea, eta ondorengo elementuen produkzioa eta eraldaketa: burdin metalak, zementua, karea, beira, zeramika, paper-orea eta papera eta kartoia. Hain zuzen ere, errekontza edo prozesuko emisioak sortzen dituzte, eta Emisio Eskubideen Merkataritza Zuzentarauak arautzen ditu.

Sektore horretako emisioek gorabehera handiak izan dituzte azken urteetan, batez ere Castejongo ziklo konbinatuen sorkuntza elektrikoaren jarduera handiagoaren edo txikiagoaren arabera. Oro har, emisioak %35 jaitsi dira 2005. urtearekin alderatuta, sektore guztietan jarduera orokorra murrizteagatik, bereziki sorkuntza elektrikoaren eta zementuaren fabrikazioaren sektorean.

Emisioak murrizteko Gobernuak hartutako neurriak

Errealitate horri aurre egiteko eta Akordio Programatikoari erantzuteko asmoarekin, Nafarroako Gobernuak Aldaketa Klimatikoaren ibilbide-orria definitzen ari da duela urtebete hasita, eta, besteak beste, berotegi-efektuko gasak eta osasunarentzat kaltegarriak diren era guztietako gasak eta partikulak murriztu nahi ditu. Horretarako, Departamentu arteko Batzordea sortu da, departamentu guztietako ordezkariarekin, eta horren egiteko nagusia izango da ibilbide-orri hori egitea eta abian jartzea.

Ildo horretan, onartu berri duen Energia Estrategiaren barnean, Nafarroaren helburua da 2030ean energia berriztagarriek kontsumo energetikoaren %50a osatzea, eta, era horretan, hiru eremu landu beharko dira: erregai fosiletatik datorren energiaren kontsumoa murriztea, energia berriztagarriaren produkzioa gehitzea eta energia-eraginkortasuna areagotzea.

Nafarroako Gobernuak aurkeztu berri ditu energia berriztagarriak sustatzeko neurriak nahiz mugikortasun elektrikoaren eta aurrezte eta eraginkortasun energetikoko laguntzak. Halaber, laguntzak aurrekusi ditu birgaitze energetikorako, zerga-pizgarriak pertsona fisiko eta juridikoentzat eta toki-erakundeentzako laguntzak.

Horien artean nabarmentzekoa da diru-laguntzen hurrengo deialdia, milioi bat eurokoa, toki-

erakundeek honako hauen inguruan garatuko dituzten jarduerak finantzatzeko: argiteria publikoa aldatzea energia-eraginkortasuna gehitzeko, energia berriztagarrien arloko inbertsioak eta mugikortasun elektrikoa sustatzea, ibilgailu bat erosita edo birkargatzeko azpiegiturak instalatuta.

Horrez gain, sozietateen zergan edo PFEZan %15eko dedukzioa iragarri da energia berriztagarrien instalazioetan eta mugikortasun elektrikoan egindako inbertsioengatik, eta etxebizitzak birgaitzea sustatzea eraikinen ingurutzailer termikoa hobetzeko, 12.000 euroko diru-laguntza arruntarekin, familia bakarreko etxeen kasu batzuetan 25.000 eurora bitarte gehitzeko aukera eta guzti.